



EBAZPENA 2011KO MAIATZAREN 12KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIA KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ DEI EGITEN DA BERRITZEGUNETAKO HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO, BERRITZEGUNETAKO LAGUNTZAILE ETA IDAZKARI DOKUMENTALISTEN EGINKIZUNEZ, BAITA ORDEZKOEN ZERRENDATZEMATEKO ERE

Ebazpen honen xedea da, Berritzatzeko Zuzendaritzak proposatuta, deialdia bat egitea Berritzegunetako hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan betetzeko, Berritzegunetako laguntzaile eta idazkari dokumentalista funtzioak egiteko 2011-2012 ikasturtean eta ordezkoen zerrenda eratzeko, OINARRI hauen arabera:

Lehen.- Deialdi honen I, II eta III eranskinetan azaltzen dira deitutako lanpostuak eta funtzioak.

Bigarrena.- Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasle, Lanbide Heziketako irakasle tekniko eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioak, baita ere, praktikan dauden irailaren batean karrerako funtzionario baldin badira, jarduneko zerbitzuan badaude eta eranskinean lanpostu desberdinetarako ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte; era berean, lan-legepeko kontratu mugagabea dutenek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Berritzeguneko lanpostu-zerrendan lan bakoitzerako eskaintzen diren baldintzak betetzen badituzte (41/2009 Dekretua, otsailaren 17ko; EHAA, 40. zk. 09/II/26koa) horretan ezartzen ez badira, unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenekoak, EHAA, 07/X/31koa (182/2007 Dekretua, urriaren 23koa). Berritzeguneko laguntzaileen funtzioak egiteko, gainera, II. eranskinean jasotzen diren baldintzak ere bete behar dira. Bitarteko irakasleek ere parte hartzeko aukera izango dute, karrerako funtzionarioek eta praktikan funtzionarioek lehentasuna izango duten arren.

Berritzeguneko laguntzaile-funtzioak betetzeko lanpostuak Berritzegune Nagusiko (Bilboko, Vitoria-Gasteizko, Lasarteko) zentroetan egongo dira, lanpostua lortzen duen irakaslearen destino-lurraldearen arabera.

Aurreko ikasturteetan emandako zerbitzu-eginkizuna luzatzeko asmoa adierazi dutenak deialdi honetatik kanpo geratzen dira.

Berritzeguneko laguntzaile-funtzioak egiteko, kanpoan geratzen dira IRALE programan 2011-2012 ikasturtean liberatuko diren guztiak.

Behin zerbitzu-eginkizuna esleitu gero, ezin izango zaio uko egin, harik eta deialdi honen xede den ikasturtea amaitzen den arte.



Hirugarrena.- Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskaria aurkeztu beharko diote Langileria Kudeatzeko zuzendariari Hezkuntza; era berean, eskatutako betekizunen eta alegatutako merezimenduen egiaztagiria ere aurkeztu beharko dituzte, oinarri hauen eranskinetan aurreikusitakoari jarraiki.

Aurkezten diren fotokopia guztiak Hezkuntza Ordezkaritzek luzatutako dokumentuak eratzeko eginbideekin batera eraman beharko dira.

Berritzeguneetako izangaiek eta Berritzeguneko laguntzaileen funtzioak betetzeko izangaiek memoria bat idatzi beharko dute bete beharreko funtzioei eta lanari buruz. Memoria, gehienez ere, hamar orrikoa izango da, tarte bikoitzaz alde batetik idatzita. Idazkari dokumentalisten funtzioak betetzeko izangaiek gehienez ere hiru orri idatzi beharko dituzte baldintza beretan beren funtzioei eta lanari buruz.

Puntuazioaren % 50 atera beharko dute gutxienez izangaiek, hala memorian nola elkarrizketan (memoriaren puntuazioaren % 50 baino gehiago ateratzen duten izangaiei baino ez zaie elkarrizketarako deituko). Baremoko puntuazioaren % 40 baino gehiago atera beharko da, gainera.

Laugarrena.- Parte hartzeko eskabidea arauturiko ereduaren arabera eta maiatzaren **20a** (egun hori barne) baino lehenago aurkeztu beharko da Hezkuntzako lurralde ordezkaritzetan. Parte hartzaile bakoitzak ezin izango du eskabidean 5 eskaera baino gehiago egin. Eskaera horiek lehentasunaren arabera ordenatuko dira, eta lanpostu bakoitza banan-banan eskatu beharko da, honako hauek zehaztuta: lanpostuaren izena edo funtzioak, destino-herria eta LZPen kasuan, kodea adieraziko da.

Bosgarrena.- Hautagaiek alegatutako merituak baloratzeko batzorde bat osatuko da, eta bertan, kide hauek izango dira:

- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria, edo eskuordetzen duen pertsona; lehendakari jardungo du.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat; idazkari jardungo du.
- Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari bat.
- Pedagogia Berriztatzeko lurralde-arduradunak

- Era berean, sektorean ordezkapen nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkarik bana izango da batzordean, hizpidez baina botorik gabe.

Batzordeak aholkulari teknikoan iritzia jaso dezake memoriak baloratu eta elkarrizketak egiteko.



Seigarrena.- Ez da baloratuko eskabidean aipatzen ez den meriturik edo aipatu arren epe barruan behar bezala egiaztatzen ez denik.

Zazpigarrena.- Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, honela ebatziko da, hurrenez hurren: baremoaren atal bakoitzeko puntuazio altuenari begiratuz eta atalak baremoan duten hurrenkera kontuan hartuz. Hala ere berdinketak jarraitzen badu, azpiarloetan lortutako puntuak aintzat hartuko dira, eta, lehen bezala, baremoan agertzen den hurrenkerari jarraituz.

Bi kasuotan, atal eta azpiatal bakoitzean kontuan izango den puntuazioa ezin izango da baremoan finkatutako puntuaziorik altuena baino handiagoa izan.

Zortzigarrena.- Zerbitzu-eginkizunak Langileria Kudeatzeko zuzendariak ebatziko ditu aipatutako batzordeak proposatuta. Zerrendak argitaratzen direnetik 10 eguneko epean, emandako zerbitzu-eginkizunei egin ahal izango zaie uko.

Bederatzigarrena.- Emandako zerbitzu-eginkizunak indarrean egongo dira 2010-2011 ikasturtean, salbu titularra ikasturtean zehar lanera itzultzen bada. Emandako zerbitzu-eginkizunak hurrengo ikasturteetarako ere luza daitezke

Hamargarrena.- Zerbitzu-eginkizunak esleituta dituzten pertsonak praktiketako funtzionario izendatzen badituzte, eginkizunok indargabetu egingo zaizkie.

Hamaikagarrena.- Deialdi honetan, I. eranskineko lanpostuetarako aukeratutako irakasleek zerbitzu-eginkizunetan betetzen duten lanpostuari dagozkion ordainsariak jasoko dituzte eta Berritzeguneak edo finkatutako ordutegi-egutegiak bete beharko dituzte.

Deialdi honetako II. eranskinaren arabera, berritzeguneko laguntzaile-funtzioak betetzeko hautatutako irakasleek berritzeguneko aholkulariari dagozkion ordainsariak jasoko dituzte eta berritzeguneak finkatutako ordutegi-egutegiak bete beharko dituzte.

. Hautatutako langileak Berritzeguneko zuzendariaren menpe egongo dira, organiko eta funtzionalki, eta urtean 1.140 orduko lanaldia izango dute (190 egunekoa), eta irailaren 1etik ekainaren 30a arte bete beharko du. Langile horiek astean 30 orduko lanaldia bete beharko dute lanaldi zatituan, goizez eta arratsalde. Lanaldia berritzegune bakoitzean zehaztuko da, eta malgua izan beharko du, ikastetxeetako irakasleak zerbitzu horietara joan ahal izan daitezen (egunero sartu beharreko sei orduak 8:00etatik 19ak bitartean banatuko dira.).



Hamabigarrena. Ordezkoen zerrenda eratu eta kudeatzea.

Prozedura honen bidez hautagaien zerrenda bat osatzeko deia egiten da, behin-behingo betetzeko 2011/2012 eta 2012/2013 ikasturteetan hutsik egongo diren lanpostuak.

Horretarako, ordezkoen zerrenda bat osatuko da, deialdi honen bigarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta memorian eta elkarrizketan exijitutako gutxienezko puntuazioa gainditzen duten hautagaiekin.

Ordezkoen zerrenda ordenatzeko irizpideak:

Oro har, aukeratze-prozesuan eskuratutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuko da ordezkoen zerrenda. Bi hautagai edo gehiagoren artean puntuazioaren guztizkoan berdinketa suertatuz gero, baremoaren atal bakoitzean dagoen puntuaziorik handienari begira ebatziko da berdinketa hori, ordenaren arabera. Berdinketak jarraituz gero, azpiatal desberdinetan eskuratutako puntuazioari begiratuko zaio, baremoan agertzen diren ordenaren arabera.

Ordezkoen zerrendak funtzionatzeko era:

Zerbitzuak ematen dituen lurralde berean lanpostu huts bat betetzera deituz gero lanpostu huts horri uko egiten bazaio, hautagaia zerrendatik at geratuko da.

Zerbitzuak ematen dituen ez den lurralde batean lanpostu huts bat betetzera deituz gero, lanpostu huts horri uko egiteak ez du zerrendatik at geratzea ekarriko.

Ordezkoen zerrenda hau bi ikasturtetan, 2011/12 eta 2012/13 egongo da indarrean eta beste deialdi bat egin beharko da 2012/13 ikasturteak bukatu baino lehenago, edo lehenago, etorkizunari begira egongo diren lanpostu hutsak betetzerik ez badago.

Hamahirugarrena. Eskatzaileek emandako datu pertsonal guztiak fitxategi automatizatu batera sartuko dira deialdi hau kudeatzeko. Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren erantzule, eta beragana jo beharko da datuok ikusi, zuzendu edo ezabatzeko nahiz aurka egiteko eskubideaz baliatzeko (Donostia-San Sebastián kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

Sinatzaileek berariaz baimena ematen dute datu pertsonalak deialdiaren oinarrietan adierazitako moduan eta helburuaz lantzeko; era berean, baimena ematen dute datuok argitara emateko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan, baina deialdiaren izapideak betetzeko baino ez.

Hamalauugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau Hezkuntzako



**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA**

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordetza
Langileleriaren Kudeaketa zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

lurralde-ordezkaritzetan argitaratzen denetik aurrera; izan ere, hori ezartzen du Herri
Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2011eko maiatzaren 12a

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA**



I. ERANSKINA

BERRITZEGUNEETAKO LPZ-KO ZENBAIT LANPOSTU BETETZEKO

BERRITZEGUNEAK

ARABA:

BERRITZEGUNEA: A01. Vitoria-Gasteiz.

A01 HPB AHOLKULARIA: Gizarteratzea

A01 PROGRAMAKO AHOLKULARIA: Hizkuntza Normalkuntza

BIZKAIA:

BERRITZEGUNEA: B01. Bilbao Abando.

B01 PROGRAMAKO AHOLKULARIA: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

BERRITZEGUNEA: B02. Bilbao Txurdinaga.

B02 ETAPAKO AHOLKULARIA: Haur eta Lehen Hezkuntza

B02 ETAPAKO AHOLKULARIA: Lehen Hezkuntza

B02 ETAPAKO AHOLKULARIA: : Bigarren Hezkuntza. Arlo sozio-linguistikoa.

B02 HPB AHOLKULARIA: Ikasteko gaitasunen garapena.

B02 PROGRAMAKO AHOLKULARIA: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

BERRITZEGUNE: B03. Sestao.

B03 ETAPAKO AHOLKULARIA: Lehen Hezkuntza.

B03 PROGRAMAKO AHOLKULARIA: Hizkuntza Normalkuntza.

BERRITZEGUNE: B04. Barakaldo.

B04 HPB AHOLKULARIA: Garapenaren nahaste orokorrak

B04 HPB AHOLKULARIA: Gizarteratzea.

BERRITZEGUNE: B05. Ortuella.

B05 ETAPAKO AHOLKULARIA: Haur eta Lehen Hezkuntza

B05 ETAPAKO AHOLKULARIA: Lehen Hezkuntza

BERRITZEGUNE: B09. Durango.

B09 ETAPAKO AHOLKULARIA: Bigarren Hezkuntza. Arlo zientifiko- teknologikoa.

B09 HPB AHOLKULARIA: Gizarteratzea.



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordetza
Langileriaren Kudeaketa zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

GIPUZKOA:

BERRITZEGUNE: G01. Donostia.

G01 ETAPAKO AHOLKULARIA: : Bigarren Hezkuntza. Arlo sozio-linguistikoa.

G01 HPB AHOLKULARIA: Garapenaren nahaste orokorrak

BERRITZEGUNE: G02. Irun.

G02 HPB AHOLKULARIA: Komunikazioaren ulergarritasuna eta garapena.

G02 HPB AHOLKULARIA: Ikasteko gaitasunen garapena.

BERRITZEGUNE: G03. Eibar.

G03 ETAPAKO AHOLKULARIA: Lehen Hezkuntza



II. ERANSKINA

BERRITZEGUNEETAKO LAGUNTZAILEEN FUNTZIOAK

Hezkuntza Saileko sare publikoko ikastetxe publikoetan 5 urteko irakasle-lana egiaztatu beharko da edo bost urtekoa irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuetan.

BIZIKIDETZA: postu 1

Bizikidetza eremuaren garapena.

Eremu honekin zerikusia daukaten mintegi eta proiektuak dinamizatzea.

2.HE duten A/B taldeko irakasleentzat

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO ETAPA: postu 1

Haur eta Lehen Hezkuntza etapekin zerikusia daukaten mintegi eta proiektuak dinamizatzea.

2.HE, etapan edo etapako aholkularitzan 3 urteko esperientzarekin duten B taldeko irakasleentzat.



**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA**

Administrazio eta Zerbitzen sailburuordetza
Langileriaren Kudeaketa zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

III. ERANSKINA

HUTSIK DAUDEN BERRITZEGUNEETAKO IDAZKARI DOKUMENTALISTEN POSTU ETA FUNTZIOAK

BERRITZEGUNEA: G06. Lasarte

Idazkari-dokumentalista.

2.HE duten A/B taldeko irakasleentzat.



IV. ERANSKINA

BERRITZEGUNEETAKO LPZ-KO ZENBAIT LANPOSTU BETETZEKO BAREMOA

GUZTIRA, GEHIENEZ ERE 20 puntu

- 1.- Memoria: gehienez 4 puntu.
- 2.- Elkarriketa: gehienez 4 puntu.
- 3.- Esperientzia: gehienez 4 puntu.

- Irakaskuntzan laguntza-zerbitzuetan (COP, CEIDA, IDC...) izandako lan-esperientziagatik, ikastetxeetan edo hezkuntza-administrazioan zuzendaritza-taldeetan esperientzia izateagatik, edo prestakuntza-taldeen edo laguntza-zerbitzuetatik kanpoko berrikuntza-taldeen koordinazioan esperientzia izateagatik: 0,25 puntu urteko. (1 puntu, gehienez).

- Eskatzen den lanpostuaren esparruko esperientzietan parte hartzeagatik: 0,25 puntu urteko. (1 puntu, gehienez).

- Eskatzen den lanpostuaren esparruko proiektuetan egindako dinamizazio- eta koordinazio-lanengatik: 0,50 puntu urteko. (2 puntu, gehienez).

- 4.- Prestakuntza: gehienez 2 puntu.

10 ordu baino gehiago ziurtatzen duten ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatutakoak (ordu-kopurua espresuki adierazita dutenak edo baliokidetasunen ebazpenean aditzera emana dutenak) balioetsiko dira, beti ere, eskatzen den lanpostu edo funtzioekin lotura badute.

Prestakuntzako 10 orduko: 0,10 puntu. (1 puntu, gehienez)

Atzerriko hizkuntzen (ingelesa, frantsesa edo alemana) ezagutza-maila balioetsiko da (gehienez 1 puntu), honako ziurtagirien arabera:

B2: 0,5 puntu.

C1: 0,75 puntu

C2: 1 puntu

5. Emandako hitzaldi edo ikastaroengatik: gehienez 2 puntu.

Ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatutakoak (ordu-kopurua espresuki adierazita dutenak) balioetsiko dira, beti ere, eskatzen den lanpostu edo funtzioekin lotura badute.

- Emandako ikastaroetan ziurtatutako 10 orduko: 0,20 puntu.

- Hitzaldi bakoitzeko: 0,20 puntu.



6. Argitalpenak (ISBN zenbakiarekin): gehienez 2 puntu.

Balioetsiko diren argitalpenak eskatzen den lanpostuaren esparruarekin lotura dutenak izango dira. Honela balioetsiko dira:

- Artikuluak: 0,25 puntu.
- Egile bakarreko liburua, softwarea edo bideoa: 0,75 puntu.
- Askoren arteko liburua, softwarea edo bideoa: 0,25 puntu.

7. Hezkuntzako administrazioan duen antzintasunagatik: 0,15 puntu urteko. (gehienez 2 puntu).



V. ERANSKINA

IDAZKARI DOKUMENTALISTEN LANPOSTUAK BETETZEKO BAREMOA

GEHIENEZ ERE, GUZTIRA: 15 PUNTU

- 1.- Memoria: gehienez 5 puntu.
- 2.- Esperientzia: gehienez 4 puntu.

Esperientzia Hezkuntzako Laguntza Zerbitzuetan: 0,25 puntu urteko (2 puntu, gehienez ere).

Esperientzia zuzendaritza-taldeetan. Zuzendaria, Ikasketa Burua eta Idazkaria (Hezkuntzako Laguntza Zerbitzuetan salbu) edo hezkuntzako administrazioan izandako lanpostua: 0,25 puntu urteko. (2 puntu, gehienez ere).

- 3.- Prestakuntza: gehienez 3 puntu.

IKTekin (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiekin) lotutako prestakuntza: 1 puntu, gehienez ere.

Jorratuko diren zereginekin lotutako prestakuntza: 1 puntu, gehienez ere.

Atzerriko hizkuntzekin lotutako prestakuntza: 1 puntu, gehienez ere.

10 ordu baino gehiago ziurtatzen duten ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatutakoak (ordu-kopurua espresuki adierazita dutenak edo baliokidetasunen ebazpenean aditzera emana dutenak) balioetsiko dira.

10 orduko: 0,10 puntu.

- 4.- Hezkuntzako administrazioan duen antzintasunagatik: 0,20 puntu urteko (gehienez ere 3 puntu).